

## II. EUSKAL MUNDU BILTZARRA: INGURU GIROA ETA LURRALDEKO DESANTOLAKETA?

Aldez aurretik, Gasteizera joan baino lehen kritika ugari irakurri nituela Euskal Mundu Biltzar ponposoari buruz esan behar dut, baina baikorra naizenez, pentsatu nuen zerbait, bederen, baliogarria izango zela. Orain, Gasteiztik etorri eta gero, denbora pixkat pasa ondoren, ezkorra izan behar dudala esan beharra daukat.

Lerro hauek idaztera bultzatu nauten arrazoiak bi izan dira. Lehenengoa, antolaketari buruzkoa da, eta kritika izan arren onargarria delakoan nago. Halaber denon kritikarako eskubidea errebindikatzen dut (azken bolodan herri honetan, eta biltzarrean baieztatu nuenez, segun ze girotan tonokoa kritikoa erabiltzea oso gaizki ikusita dago, ulertezina gertatzen zaio zenbait jendeari). Izan ere, nik ez dakit biltzarrean antolaketa geografo, soziologo, biologo, e.a.-en eskuetan egonez gero ze gerta lekiokkeen, baina susmatzen dut gauza askoz zabalago eta irekiagoa litzakeela, disziplinarteko gauza egingo luketela. Eta hau komentatu nahi dut Castells jaunak biltzarrean klausuran oso kongreso positibo eta disziplinartekoa izan zela azpimarratu zuelako. Eta patxara ederrean gelditu zen.

Maila guztietan "liluratzan gaituen" Europa honetan, bai lurraldeko antolaketan bai ingurogiroan, lanbide guztiak hartzen dituzte kontuan, abokatu eta arkitektoz aparte (ba al zekiten antolatzaileek biologoak, soziologoak, geologoak, geografoak, e. a. existitzen direla?). Ba hauetako bat bakarrik ere ez zen ikusi. Jendeak ideia txiki bat egin ahal izateko detaile txiki bat bakarrik: orokorrean 12 ponentzia aurkeztu ziren, 8 abokatuek egindakoak, 2 arkitektoek aurkeztutakoak, bat ekonomista batek presentatutakoak, eta azkena, ingeniero batena.

Horregatik biltzarrean oso ikuspegi juridikoa zeukaten ponentzia bukaezinak nagusitu ziren, legislazio desberdinak eta kompetentzietan gertatzen diren istiluak errepasatuz, jendearengandik urruti gelditzen zen hizkuntza juridikoa erabiliz. Agian hau zela eta, zenbait momentuetan jendeak paso egin zuen, eztabaidetan gehiegi sartu gabe (denbora izan zenean, behin baino gehiagotan eta ponenteen diskurtsoak gogorki sufritu ondoren ez zegoen asti materialik eztabaidan sartzeko. Egia da batzutan partaideen aldetik ere halako bizkar emate bat gertatu zela, baina gehienetan lur jota utzi gintuzten ponenteek).

Komentatzea gustatuko litzaidakeen bigarren puntua sakonagoa da, lehenengoarekin zerikusirik izan arren. Eta ponentzia baten eztabaidan sortu zen. Biltzarrean bi ponentzia aurkeztu ziren Eusko Jaurlaritzak bai sektorialaz bai

lurralde antolaketaz (hemen lege bat sortuz, ondo kostata) eraman duen politikaz. Ponentzia hauen aurkezleak orain Eusko Jaurlaritzan lanean ari diren edo aritu direnak ziren. Beste aldetik E.H.U.-ko Allende irakasleak politika hauei kritika eginez nahiko ponentzia gogorra aurkeztu zuen, Lurralde Antolaketaren legea zela eta.

Nere ustez Allende irakasleak bi mailatan egin zien kritika. Alde batetik lege honen sorreran gizarteko zenbait sektore baztertuak gelditu direla esaten zuen, bere iritzia emateko posibilitaterik gabe. Beste alde batetik azpimarratzen zuen, legearen ikuspegirik nagusia urbanistiko eta sektoriala zela. Bigarren puntuari dagokionez ezin dut iritzi sakonik eman legea ez baitut ondo ezagutzen (eta hemen Allenderen alde nago, zeren ez baitut uste Eusko Jaurlaritza gizartean legea zabaltzeaz eta eztabaidatzeaz oso kezkatuak ibili denik. Izan ere Gasteizko Parlamentuan zenbait partiduk beren protesta aurkeztu zuten legearen informazio eza zela eta). Dena den, legea azaletik ezagutzen badut ere, Allendekin ados nagoela esan beharra daukat.

Aurreko puntuarekin lotuta bigarren hau, legearen sorrerarena hain zuzen, pixkat komentatzea guztatuko litzaidake. Izan ere oso penagarria gertatu zitzaidan sortu zen kritika bakarrari ezta gutxienezko onarpena ere ez ematea. Kritika ondo egin gainera. Han baieztatu ahal izan zen gehienek izan behar zuten kultura soziopolitiko eta demokratika (beraien aldetik hainbestetan entzun duguna) kriston hutsunea daukatela. Honela, lehenengo hilaretan zeuden batzula gaizki esaka hasi ziren, Allende irakaslea salatzen inongo frogarik aportatu gabe, berak egindako lan akademiko bat (Santurtzi 2 hain zuzen ere), guztiz espekulatiboa izan zela. Hola potere eta gobernuko gizonen beren bakar-hizketa jarraitu zuten, betiko diskusioak errepikatuz, haien herriaren ikuspegi kolore bakarrekoa emanez, haien, haien... ez dago ezen gehiagorako lekuri, ezta kritika txikiena egiteko ere. Herri honetan azken boladan zenbait aldetatik ukatu egin digute demokrazia guztietan oinarritzko ideia dena, kontra egiteko eskubidea daukagula, alegia. Ea noizbait enteratzen diren demokrazian estabaidaguneak behar direla eta haren kontra jo beharrean, hauek aberasten dutela. Beste horma batekin hitzegitea bezala litzateke.

Bukatzeo bi bitxikeria komentatuko ditut. Eztabaida honen atzetik Foru Aldundiko ordezkariekin mahainguru bat egin behar zen, haien ikuspegiak ezagutzeko (Nafarroako Foru Aldundiaez zegoen noski). Ba hor agertu zen Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria aurreko puntuak baieztatzeo. Humore zorrotz batekin, hori bai, zergatik hainbeste eztabaida, hirritarrak holako gauzetan parte hartu behar zuten ala ez, azken finean, kaleko jendeari bere etxeko atearekin ze gertatzen den bakarrik interesatzen bazaio, inongo ikuspegi orokor edo kolektiborik izan gabe. Eta hor konpon Marianon, hortxe geratu zen lasai asko. Noski, jaun honek, hirritarrak kultura batera sarbiderik daukan, parte hartzeo behar diren tresnak dituen ala ez, ... ez zion bere buruari galdetzen. Jakingo ote du honek ze alde dagoen demokrazia partehartzaile eta ordezkatzailearen artean? (aztertu beharko litzateke, biltzar osoan beste lekuetan honi buruz egin dituzten esperientzia hezieraz ez zen ez da ponentzia bat ere aurkeztu).

Bigarren bitxikeria Iruñea-Donostia autobideari buruzkoa da. Klausura baino lehen Larunbe jaunak, Donostiako Zuzenbideko irakaslea eta biltzarraren antolatzaile bat, aurkeztu zuen bere ponentzia. Nahiz eta hitzaldia beste bide batetik joan, galderak egitean batek galdetu zion ea autobidea ez zihoan legearen kontra,

ea inkonstituzionala zen. Bere erantzuna esan aurretik, azaldu behar dut biltzar osoan bai hemengo ponenteek bai kanpokoek oso garbi utzi zigutela edozein obra, bi komunitate autonomoei baldin badagokie, Estatu zentralaren konpetentzietan sartzen dela. Hona hemen Larunbe jaunak emandako erantzuna: ezetz, bai zera, ez genuela ondo ulertzen problema hori. Gertatzen dena da Gipuzkoako Foru Aldundiak autobide bat egiten duela eta Nafarrakoak bere aldetik berea,... eta kasualitatez!!! (hau nirea da) mugar elkartzen direla.

Lotsagarria, benetan lotsagarria...

\* \* \*

Cualquier congreso sobre cualquier disciplina debe ser válido en dos aspectos. El primero favorecer la posibilidad de un intercambio de información sobre el estado de la cuestión, ya sea aportando nuevos planteamientos ya sea profundizando en planteamientos ya conocidos. El segundo es posibilitar el contraste entre diferentes aportaciones que permita enriquecer y avanzar en la discusión.

Ninguno de estos objetivos se cumplió. El sesgo del congreso fue eminentemente legislativo, sin favorecer una interdisciplinaridad que cada día se impone más en ambas materias (de las 12 ponencias 8 fueron presentadas por abogados, 2 por arquitectos, otra por un economista y la última por un ingeniero, por cierto la única en euskera). Por otro lado las posibilidades de contraste (únicamente favorecida por la ponencia del profesor Allende, ciertamente crítica al antiguo proyecto de Ley de Ordenación del Territorio de anteriores gobiernos de la C.A.V.) no fueron muy bien acogidas por algunos de los ponentes, ni transcurrieron por los cauces democráticos deseables. Algunos de los temas puntuales, pero no por ello menos importantes, de actualidad en nuestro país (autovía Pamplona-San Sebastián, metro de Bilbao, etc.) no tuvieron el menor reflejo en el congreso.

P. Urkidi